



30 - 3 - 60

P.Lafitte Jaunari
Ustaritz'en

Nere adiskide:

Atzo ikusi nuan HERRIA gazetan AUSPOA'gatik atera
dezun artikulo ederra.Milla esker.

Poz aundis eman digu ikusteak,baita ere ain poliki
egia dagoala irakurtzeak.

Badakigu artikulo ori askok irakuriko duana eta mese-
de ederra egingo diguna.

Egia esan,ez gera libururik ateratzen asiko ~~milla~~
arpidedun mordoxka polit bat izan baño len.Oso merke utzi degu,
ta milla~~ak~~ arpidedun izan artean ez ditugu gastuak beteko.

Jendea ondotxo erantzuten ari da eta orrek ematen
digu esperantza ederra.

Gure oraingo lan gogor ontan ederki lagundu diguzu
eta gure esker beroenak merezi dituzu.

Nere bertso biltzearen lana oso aurrera dize. Inork
ez du pentsatzen nolako aberatstasuna dagoan bertsoetan.Gai
ontaz zurekin lasai ta ~~zuzen~~ presarik gabe itzegiteko gogoa
det.Aurtengo udaran ez bada,urrengoan bai duderik gabe.

Agur.ta eskerrik asko.

Zure adiskide:

Antonio Lavala S.I.



''AUSPOA''

PLAZA DE SANTA MARIA, 2

TOLOSA (GUIPUZCOA)

2 - XI - 1962

Nere adiskide Laffitte Jauna:

Gaur etorri ta AUSPOA-ren administrazio ontan esan didate oraindik ez dizutela, nik esan bezela, liburu-rik bialdu. Izan ere aurtengo liburu^{ru} bat bakarrik argitaratua zan. Emendik aurrera bialduko dizute. Gaur bertan liburu-pare bat bialtzen dizute ~~ka~~ eta aurki beste bi bialduko dizkizute. Eta pixkanaka aurtengo amabiak bialduko dizkizugu. Beste bost liburu inprentan baitaude.

Nere aldetik esan bear dizut jaso nitula kolpe batean bialdutako HERRIA-ren aleak, urteberritik asi ta Agorrilleko 30-ekoa ez beste danak. Andik onerakos falta ditut noski. Ez da arritzekoa, guk ordañean ez bait-genizun alerik ere bialdu.

Beraz, emendik aurrera gure truke ori ondo ~~ekin~~ egin dedilla, guk illero ta zuek astero.

Besterik gabe. zure adiskide:

Antonio Lavala S.J.

Badet zurekin, XUsteritz-en egunen batean lasai itzegiteko gogoia.

†
IHS
COLEGIO DE
SAN IGNACIO DE LOYOLA
(ATEGORRIETA)
APARTADO 410
SAN SEBASTIAN

Telefonos: { 10-8-13
 { 15-5-92

18 -12 - 1962

P.Laffitte Jaunari
Ustaritz-em

Nere adiskide:

Euskaltzaindiaren izenean zuri idazteko esan didate. Badakizu bertsolarien txapelketa dala emen, Donostin, ille ontako 30-an.

Txapelketa ori antolatzen ari gera eta ~~xxxx~~ juradua ere izendatu bear degu. Beste aldetik ere bat edo bat izendatu zazu eta bialdu zazu. Xalbador eta Martin datozen ezkeroztik, zuetako bat ere bear degu.

Asi naiz "HERRIA" astero artzen. Bañan urte ontako batzuk falta zaizkit: X n° 630-tik n° 640-ra, bitartean ontako zenbaki guziak falta ditut, eta urteko guziak edukitzeko pozik jasoko nituzke.

Geren aldetik, nik uste, aurtengo lau liburu artuko zenituen. Beste zazpi liburu inprentan ditugu eta aurki jarriko gera dagokigun ~~marxiz~~ martxan.

Besterik gabe, zure adiskide:

Antonio Laval



COLEGIO
SAN IGNACIO DE LOYOLA
Apartado 410
(Atgorrieta)
SAN SEBASTIAN

TELEFONO 23623

1964-ngo Azaroaren 7-an

P.Lafitte Jaunari
Uztaritz-en

Nere adiskide:

Mesede berri bat eskatu bear dizut.1962,1963 ta 1964 Herria-ren zenbaki guziak gordeta dauzkat.Ain zuzen, urte au bukatzean "enkuadernatu nai nitzuke danak.Ortikan pentsa,zuen errebista eder ori asko ala gutxi estimatzen detan.

Baian,zoritxarrez,zenbaki batzuk falta ditut,batzuk Auspoa-ren libururen baten iritzia edukirik ~~guzk~~ propaganda-rako erabili ditudalako,ta besteak edo galdu edo etorri etzaiak kidalako.

Falta ditudanak auek dira: 603,605,609,624,625,632, 633,634,635,636,637,638,639,645,656,657,672,680,691,698,699, 722,725,728,731.

Bialduko balizkidazu,mesede aundia neretzat izango litzake,baian arren ta arren eskatzen dizut oraingoan badare oyen balioa neri esateko...

Zure adiskide:

Antoni Lavala

Joan daneko biltzarran,itzegin genduan Salaverria-

ren liburuaz, Anspoa-ren 38-garrena alegia, ta iruditu zitzaidan
oraindikan etzenduala irakurri. Gaizki pentsatu banu, barkatu
arren. Nere ustez, oso liburu gogoangarria da, eta, nere ustez,
Herria-n ondotoxo goratzea merezi luke. Ta orra nik asieran
mesede bat eskatu bear nizula esan, eta azkenerako bi es-
katu...



Estudios Universitarios y Cénicos de Guipúzcoa

MUNDAIZ - TELEFONO * 3291
SAN SEBASTIAN

1965 / X / 15

Pierre Laffite jaunari
Ustaritz'en

Nere adiskide:

"Euskal-Erria" deritzaion errebistan P.Haristoy apaiz jaunak idaz-lan bat argitaratzen du Duvoisin kapitani buruz. Esaten du, badituala argataratu gabeko zenbait eskuz-idazki ~~XX~~, bere mende daudenak: "Manucrits a publier, et en notre possession". Ba al dakizu Haristoy apaizaren gauzak nora joan diran? Duvoisin'en eskuz-idazki oiek ikusi nai nituzke ta, seguru asko, Haristoy apaizaren paperetan egongo baitira, inun egotekotan. Eskertuko nizuke argibide au ematea.

Besterik gabe, zure adiskide:

*Ikusten dezunez, etxez aldatu egin naiz,
Donostiatik irten gabe.*

Antonio Lavatá

COLEGIO SAN IGNACIO

AVENIDA DE NAVARRA
SAN SEBASTIÁN

APARTADO 410
TELÉFONO 3 36 33

1971.X.6

Piarres Lafitte apaiz jaunari
Ustaritz'en

Nere adiskide on:

Gaur goizean inprentako nagusiak zure liburuaren probak zertan dauden galdetu dit. Erantzun diot zuri bialiak zirala, ta denbora asko gabe bueltatuko zenukela. Nagusi ori presatua dago, linotipiako berun asko sartu dualako. Bearbada ez nizun adierazi gure asmoa zer dan: orain liburu guzia inprimituko degu, beruna libratzeagatik, bañan enkuadernatzea ta abar gerorako utziko degu. Emengo censura-
ren berri dakitenak, esan nizun bezela, pixka batean itxogitako esan zidaten. Orain ere, orrera joan nintzan egunean bezela, lotsaz beterik nago, au esa bearrarekin...

Orregatik, proba oiek zuzentzen dituzun bezin laister, eskutitz bat bial zaidazu, orrera joan nadin.

Besterik gabe, zure adiskide:

Antonio Zavalá

COLEGIO SAN IGNACIO

AVENIDA DE NAVARRA
SAN SEBASTIÁN

APARTADO 410
TELÉFONO 2 86 28

1972/I/8

Piarres Lafitte Jaunari
Uztaritz-en

Nere adiskide:

Eskatutako lan oiek, korreoz bialduko zenizki-
dala erabaki genduan. Bañan geroztik bestela pentsatu det:
Duhalde-ren liburua ere eskuratu bear baitet, egokiago izango
da neroni orrera joatea. Dana prest daukazunean, abixatu, beraz,
eta azalduko naiz.

Edo bestela, Euskaltzaindiaren urrengo batzarre-
rako prestatzen badituzu, orduan zerorrek ekar ditzazkezu ekar-
tzeko guziak...

Berri onak ditut: gobernadorea aldatu dute.
Gaur esan du periodikoak...

Besterik gabez, zura adiskide:

Antonio Zavala

COLEGIO SAN IGNACIO

AVENIDA DE NAVARRA
SAN SEBASTIÁN

APARTADO 410
TELÉFONO 438623


1975'eko Abenduak 10

Pierre Lafitte Jaunari
Uztaritz'en

Nere adiskide:

Onezkero jakingo dezunez, datorren urtean beteko dira eun urte Bilintx il zala. Donosti'ko Aurrezki Kutxa Munizipalak bere gain artu du ospakizun ori antolatzea. Beste gauza askoren artean, itzaldiak ere izango dira. Itzaldi oietako bat zuk egin nai al zenduke? Ori zuri galdetzea agindu didate. Gaia, onoko au litzake zuretzat: amodiozko bertsoak (poesía amorosa popular alegia) Bidasoa'z ipar aldean. Euskaraz litzake, eta Martxuan edo Apirillan. Orain zure erantzunaren zai gelditzen naiz.

Besterik gabe, zure adiskide:



Xabier, 1983, Apirillak 26

Piarres Lafitte Jaunari
Uztaritzen

Nere adiskide:

Mesede bat eskatzera natorkizu. Mi-xio bertsoak bildu ditut, Auspoa'ren bi liburu-tan argitaratu asmotan, zuen aldeko bi ere sar-tuz: Bidartekoa (1824) eta Senperekoa (1868).

Irugarren bat ere bada, gutxienez; Hazparnekoa, bañan ez det eskuratu. Nere orri batean bi bertso kopiatuak ditut (beste orri batean kopiatzen dizkizut), Herria-n 1963 urtea argitaratu zirala esanez. Baionan begiratu det 1963'eko Herria oso-osorik, bañan etzait bertso sail ori azaldu. Urtea-edo oker idatziko nuan.

Bañan bertso oiek Herria astekarira zuk bialduko zenituala pentsatuz, lerro auk idazten dizkizut, bearbada zuk bertso oiek oraindik ere esku-menean izango dituzulakoan.

Ala balitz eta bialduko bazenizkida, biotzedeskertuko nizuke, Auspoaren liburu berri oiek osoagotu eta aberastuko bailirake.

Besterik gabe gaurkoz eta alde au-rretik milla esker emanez, zure adiskide:

Antonio Lavala